

# BESTELAKO XEDAPENAK

## OSASUN SAILA

### 6253

*EBAZPENA, 2021eko abenduaren 1ekoa, Farmaziako zuzendariarena, Beasainen (Gipuzkoa) farmazia-bulego bat sortzeko baimena emateko dena.*

Aztertu dugu Ane Miren Barrutia Guenaga andreak aurkeztutako eskabidea, Beasainen (Gipuzkoa) farmazia-bulego bat irekitzekoa. Hauek dira egitateak:

#### EGITATEAK

Lehenengoa.– Osasuneko sailburuaren 2020ko ekainaren 10eko Aginduaren bidez iragarri zen hasiera eman zitzaiola Beasaingo farmazia-barrutian farmazia-bulego bat irekitzeko prozedurari.

Bigarrena.– Farmazia-bulego horren titulartasuna eskuratzeko Merezimenduak Balioesteko Batzordeko kideak izendatu eta egin beharreko legezko izapideak egin ondoren, 2021eko maiatzaren 13an batzorde horrek hartutako erabakiaren bidez, lehiakideen behin betiko zerrenda onartu zen, puntuazioaren hurrenkerari jarraituz; erabakia 2021eko ekainaren 8an argitaratu zen EHAA (111. zk.). Zerrenda horretan, aipatutako lehiakideak dauka puntuazio handiena.

Hirugarrena.– Erabaki hori irmo bihurtu zen, 2021eko uztailaren 8an.

Laugarrena.– Farmaziako zuzendariak ofizio bat helarazi zion Ane Miren Barrutia Guenaga andreaki, 2021eko uztailaren 16an, zeinaren bidez jakinarazi baitzion berak lortu zuela aurkeztutako merezimenduen balorazioan puntuaziorik handiena eta, ondorioz, ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritako prozedurari ekin behar ziola (338/1995 Dekretua, Farmazia-bulegoak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzekoa). Hala-ber, ohartarazi zion ezen, xedapen horretan ezarritako epean eskatutako agiri guztiak aurkezten ez bazituen, deialdian parte hartzeari uko egiten ziola esan nahiko zuela.

Bosgarrena.– Ane Miren Barrutia Guenaga andreak 2021eko urriaren 6an baimena eskatu zuen Beasain udalerrian farmazia-bulego bat sortzeko, 338/1995 Dekretuaren babesean, eta, eskabide horrekin batera, dekretu horren 5. artikuluan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu zuen.

Aurkeztutako agirietan ikusten denez, farmazia-bulego berria helbide honetan dagoen lokalean jarri nahi da: Nafarroa hiribidea 9, Beasaingo farmazia-eremuko 3.C.GA.06 osasun-eremuan.

Seigarrena.– 2019ko urriaren 20an, Farmaziako zuzendariaren ofizio baten bidez espediente honetan interesdun izan daitezkeenei esan zitzaien espedientean pertsonatzeko eta egoki irizitako alegazioak aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 8. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Zazpigarrena.– Azkenik, Farmazia Antolamenduaren arduradunak, 2021eko azaroaren 30ean, aldeko txostena egin zuen Ane Miren Barrutia Guenaga andreak aurkeztutako dokumentazioari buruz.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Farmaziako zuzendariak dauka espediente honi buruz ebazpena emateko eskumena; hala ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko

ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 34. artikuluan eta Osasun Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuaren 16. artikuluan.

Bigarrena.– Batetik, aurkeztu diren merezimenduak baloratuta, Ane Miren Barrutia Guenaga andreak izan du puntuaziorik handiena; bestetik, Farmaziak sortzeko ezarritako prozedurari dagokionez, 11/1994 Legearen 34. artikuluan ezarritako eta 338/1995 Dekretuan garatutako xedapenak bete dira; azkenik, dekretu horren 5. artikuluan arabera, lehiakideak agiri guztiak eta eskatutako epean aurkeztu dituela egiaztatu da. Horrenbestez, bidezkoa da interesdunari baimena ematea farmazia-bulegoa jartzeko.

Dena dela, jardun ahal izateko baimena lortu beharko da, emandako baimenak indarra izango badu; hala ezartzen da 338/1995 Dekretuaren 6. artikuluko 4. apartatuan.

Hori guztia kontuan hartuta, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Baimena ematea Ane Miren Barrutia Guenaga andreari farmazia-bulego bat sortzeko. Berak aurkeztutako agirien arabera, hemen sortuko da farmazia: Beasain udalerriko (Gipuzkoa) Nafarroa hiribideko 9. zenbakian.

Bigarrena.– Baimen honek indarra izan dezan, Ane Miren Barrutia Guenaga andreak jardunean jartzeko baimena aurretiaz lortu beharko du. Baimen hori eskatzeko lau hilabeteko epea izango du, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta, betiere, 338/1995 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri eman behar zaie interesdunei, eta jakinarazi, era berean, honek ez diola amaiera ematen administrazio-bideari eta ebazpen honen aurka, egoki iritzitako bestelako errekurtsuez gain, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango dutela zuzendaritza honetan edo Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 1a.

Farmaziako zuzendaria,  
JON IÑAKI BETOLAZA SAN MIGUEL.